ELHEKETA : Astz huntako solas-bidea.
1. Eñautenmaitasuna ardientzat!
2- Eñautek nola ezagutzen zuen bortua?
3- Nola zoan ibiliz?

# DONADOA 5

Ardi hura etzuen bertzeak baino maiteago. Denentzat amodio bera zuen, aita on batek bere haur guzientzat duen amodio hura, hautura txarrik gabe. Aitamek beren haurrak, artzain batek bere ardiak Jainkoaren ondotik.

Askal ondoan, ilobari erranik egur poxi baten biltzerat zoala neguko, ez urrun, Eñaut abiatu zen Beraineko etxolari buruz. Ontsa ezagutzen zuen Luisek esplikatu harroka zilo hura. Lehenago ere ardiketa ibilia zen, frangotan, alderdi heetan, bortu zoko guzietan bezala. Hiruetan hogoi-ta-hamar urtetan bortuko arroka guziak ezagutzen ahal zituen, zilo guziak, iturri guziak. Haren mundua zen, bortua. Han bizi zen, bertze batzu hirian bizi diren bezala. Hango bidexkak ezagutzen zituen, hiritar batek bere karrikak bezala. Bortua, artzainaren lurra, lur bortitza. Bortua beti berdin menden gatik : etxolak, harrokak, arbolak, ur turrutak, belarra mehe... Duela berrehun urte bizi izan diren artzainek hola-hola utzi zuten Irupelle, Oilaxkoa eta bertze... Gizonaren lana guti ageri mendi kasko horietan !

Gizona uros zen ardiak maite zituelakotz. Bihotzean su baten ukaitea aski da zorionaren ukaiteko.

Makila eskuan, aspaldiko makila, elhorri zurizkoa, bazoan. Emeki zoan ez baitzen lasterka ibiltzeko adinean. Beraineko harrokari buruz. Iguzkia ateratu zen. Haren argiak izotz zuriaren gainean distiratzen zuen. Arbolak buluziak ziren, han hemenka osto bakar batzu baizik etziren higitzen eta denmendren haize kolpean lurrerat heldu ziren, izotzak gogorturik. Begietan min egiten zuen goizeko iguzkiak.

Eguerditan artzain xaharra etzen oraino etxean sartua. Ilobak pentsatu zuen etxola zonbaitetan sartua zela eta bazkaiten atxikarazia zutela.

Bortua gauak hartu zuelarik, Eñaut etzen oraino etxean sartua.

## (II) ADITZ IKASKUNTZA

31- biltzerat zoala 32- amodio bera zuen.
33- bizi zen 34- Gu gitzazkizu
35. Zuek zitzazkidate

### 31. JOAN- Indicatif Imparfait-

| | | |
|---|---|---|
| Ni nindoan = j'allais | nindoake = j'irai | CONDITIONNEL |
| Hi hindoan : tu allais | hindoake : | |
| Zu zinoatzin : | zinoazke : | |
| Hura zoan : | loake : | |
| Gu ginoatzin : | ginoazke : | |
| Zuek zinoazten : | zinoazkete : | |
| Hek zoatzin : etc | loazke : etc | |

### 32. UKAN. Indicatif imparfait.

| | |
|---|---|
| Nik nuen (je l'avais) | nituen (je les avais) |
| Hik huen | hituen |
| Zuk zinuen | zinituen |
| Harek zuen | zituen |
| Guk ginuen | gintuen |
| Zuek zinuten | zinituzten |
| Heik zuten | zituzten |
| O. S. | O. P. |

### 33 IZAN. Indicatif Imparfait

Ni nintzen = j'étais
Hi hintzen =
Zu zinen =
Hura zen =
Gu ginen =
Zuek zinezten =
Hek ziren = etc